

opusdei.org

Opus Deiko prelatutza

Opus Dei bazen, lehendik ere, laikoez eta apaizez osaturik, nazioarteko eremuan pastoral eta apostolutza zereaginean lankidetzan ziharduen batasun organikoa.

2004 Mar 18

Opus Dei bazen, lehendik ere, laikoez eta apaizez osaturik, nazioarteko eremuan pastoral eta apostolutza zereaginean lankidetzan ziharduen batasun organikoa. Zeregin kristau konkretu hori santutasunaren ideal

zabaltzean datza, baina munduaren barruan, pertsona bakoitzaren lanbide eta ohiko inguruabarretan.

Pablo VI.ak eta hurrengo Aita Santuek xedatu zuten aztertu zezala, Opus Deiri, beronen izaerari zegokion behin betiko eraketa juridikoa ematearen posibilitatea; eta hori, agiri kontziliarren ikuspegitik prelatutza pertsonala izan behar zen. Moldaketa hori egiteko lanak 1969an hasi ziren, bai Aulki Santuak eta baita Opus Deik ere parte hartuz.

Lan horiek 1981ean amaitu ziren. Orduan, Aulki Santuak txosten bat bidali zien Opus Dei lanean ziharduen elizbarrutietako bi milatik gorako gotzainei, beren oharpenak adieraz zitzaten.

Urrats hori eginda, Juan Pablo II.ak, 1982ko azaroaren 28ko Ut sit konstituzio apostolikoaren bidez, Opus Dei nazioarteko eremuko prelatutza pertsonala eratu zuen.

Aipaturiko konstituzio apostolikoa,
1983ko martxoaren 19an bete zen.
Agiri horrekin, Aita Santuak
Estatutuak, hots, Opus Deiko
prelatutzaren pontifize-lege berezia,
aldarrikatu zituen. Estatutuok,
fundatzaileak urteak lehenago
prestatuak dira, legeri berrira
moldatzeko beharrezko aldaketekin.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/opus-
deiko-prelatutza/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/opus-deiko-prelatutza/) (2025 Abu 6)